

• PERTSONAIA •

“Maite ditut basoak, haitzak, harriak, zelaiak, behiak... Horrelakorik ez da hirian, horregatik ez dut hiria maite”. Horregatik bizi da landa-zelaietan, Baiona kanpoaldean.

Horregatik alde egiten du mendira ahal duen oro. Gaztetxotan hasi zen bi anaia zaharragoekin: “Beraiek gidatzen zuten mendira eta nik gidatzen nituen mendian”. Ia 40 urtez aritu da, nekagaitz, marrazkiak egin eta notak jasotzen; kartografian. Bidegilea da. Inork ez bezala ezagutzen ditu bidezidor xendra estratak, berak ‘egin’ ditu eta. Eta lasterbiderik hartu gabe.

JON ARTANO

Argazkiak: Dani Blanco



Miguel Angulo

«Herrien kultura ikasi daiteke paisaian»

Kartografia genealogiko pixka bat egingo al diguzu, hasteko?

Arbasoak jatorriz Burgoskoak izan behar zuten, Angulo herria ere hor hurbil da. XIX. mendearen hastapenean joan zen Ameriketara Nicolas de Angulo, fortuna egitera. Gerora gure aitatxi bueltan etorri zen, Paraguayko enbaxadorea zen Madrilen. 36ko Gerla atera zenean han zeuden aitatxi, amatxi eta aita –hamalauren bat urte izango zituen– eta setioan non gorde ez zuen jende asko hartu zuten enbaxadan. Latza izan zen, noiznahi tiroak sartzen ziren leihoetatik eta orduan azkar denak lurrera. Etxean dugu Paraguayko bandera dena bala-zuloz eta odol arrastoz josia.


Gerla finitzean Frantziara egotzi zituzten. Diplomatiakoak izanagatik gainerako errefuxiatuekin egin zuten bidea Bartzelonara, handik Perpinyara, eta azkenik Akizera. Amonaren ahizpa Paraguayk Frantzian zuen kontsularekin esposatua zen eta

Akizen zuten udarako etxea. Garai hartan ez zen ahuntzaren gaurdiko eztula Atlantikoa zeharkatzea, Bigarren Mundu Gerla lehortua zen gainera... Baina ez ziren horregatik geratu hemen: arrazoia izan zen gure aitonak eta amonak ez zutela elkar ulertzen. Aitona bakarrik itzuli zen Paraguayra; amona eta aita bertan laketu ziren. Gero aita Baionara ezkondu zen.

Eta zer bizimodu izan zuten zuen gurasoek?

Harrokeriarik gabekoa, arras zaila zen eta lana topatzea gerla ondorenean. Ostalaritzan aritu ziren. Aldian behin aitatzik bidalitako sos batzuk iristen ziren eta festa izaten genuen. Lehenbailehen integratu ahal izateko

Jean Defos Du Rau-ren *Pyrénées Basques* (1953), eskuan izan zuen aurreneko gida. Izenburu berbera jarri zion atera zuen lehen liburuari, 1977an.



mendirako gida bat ikusten nuena. Karta sinple-sinpleak zituen, eskuz marraztuak eta ibilbideak ere nolanahika eginak. 1953koa da liburua, nik 68an ezagutu nuen. Tarte horretan Iparraldeak alimalako garapena ukan zuen; errepi-deak, muga irekitzea... Arras interresgarria zen 50eko gidaren eta 60ko errealtatearen diferentziak atzematea.

21 urterekin publikatu nituen mendiari buruzko lehenbiziko artikulua Baionako Euskal Museoaren aldizkarian eta emeki-emeki ezagun egiten hasi nintzen, beste nehor ez baitzebilen horrelakoetan.

Eta liburua, nola heldu zen?

Pabeko Marrimpouey jaunarekin egin nuen hartu-eman, hari aurkeztu nion nire lana. Ni arras gaztea nintzen, bera berriz oso-oso zaharra, eta biziki atsegina. Ordurako bere argitaletxeak galtze handiak zituen eta erran zidan: "Hik editatuko duk heure liburua, nik inprimatu egingen diat eta ordainduko didak irabaziak heltzen zaizkianean". Eta halaxe egin genuen. Berak uste baino zaluago ordaindu nion hala ere, arras ongi saldu baitzen. 24 urte nituen eta hamazazpirekin hasia nintzen. Lan eskergea zen hura, sakona eta zehatza.

"Kartografia, militarrek asmatutako zera hori" jarri zuen Iñaki Segurolak *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo* liburuan. "Zertu" ezazu definizio hori, mesedez.

Ni hasi nintzenean material bakarra militarrena zen. Eta eskas samarra gainera. Batik bat Hegoaldekoa. Espainiako ejerzitokoek, adibidez, mendi bat eskas zuten Txindokiren ondoan. Larraun mendia lekuan harana agertzen zen; harana mendiaren lekuan! Kataluniako Alpina etxeak irauli zuen panorama hori. Ideia ona izan zuten: mendizaleentzat espres egitea kartak, xumeagoak eta ibilbidea seinalatuta zutenak. Baina hastapenean objektu zientifikoak ziren kartak. Militarrek ahal zuten gisan idazten zituzten toponimoak, euskara ez baitzuten fitsik ulertuko. Toponimia frantsesa arrunt gaizki dago. Itxuragabe. Beste hainbeste gertatzen da gaskoiarekin. Pirinioetako izen guztiak armada-ko ofizialek deformatu bezala bilduta daude.

Izen horiei deformazioarekin heldu zaie baina 'ofizialtasuna'.

Bon, horrela dira gauzak. *La Rhune* idatzi zuten eta mundu guztiak *La Rhune* erraten du. Ikastolan ikasitakoek baino ez dute erraten Larrun, eta hori ere hamabost urtetik hona.

Zuk nola egin duzu izenekin?



sekula ez ginen gazteleraz mintzatzen. Lizeoan ikasi dut nik gaztelaniaz; horregatik solasten naiz baldar samar.

Mendirako bidea behintzat irakatsi al zizuten?

Mendirako grina aitzak emandakoa dut. Lagunekin mendian ibiltzen zen gerla garaian. Iparla edo Artzamendira joaten zirelarik nazien kontrol postuetatik pasa behar izaten zuten. Soldadu austriarrak izaten ziren horietan, zaharrak eta onkoteak, botila ardoa behar izaten omen zuten joaten uzteko. Kozkortu nintzenerako anaiek, biak zaharragoak izaki, bazuten gidabaimena. Beraiek gidatzen zuten mendira eta nik gidatzen nituen mendian. Ez ziren mendizale amorratuak. Ez zuten maite neskekin dantzara joatea; neskekin mendira joatea maite zuten.

Gero Parisen ikasle izan zinen.

71tik 75era. Vietnamgo Gerlaren kontra mobilizazio handia zegoen unibertsitatean. Nire emaztea, Terese, vietnamdarra da gainera. Garai hartan Baionako herriko etxean ari zen lanean. Astero Paristik joan-jina egiten nuen elkarrekin egon ahal izateko. Eta trenean ikasten nuen. Xarmanta zen hura; zazpi oren enetzat bakarrik, nehorke trabarik egin gabe. Treneko hamalau oren horiei esker atera nituen ikasketak.

Liburu zahar batek omen du kartografo hasi izaren errua...

Jean Defos du Raurena, *Pyrénées Basques, Guide des Excursions et Ascensions dans les Montagnes du Pays Basque Français*. Esku artean hartzea berezia izan zen, lehen aldia zen

Miguelak eta bere familiak beti eramaten dituzte kayak eta bizikleta tolesgarriak bidaian. Argazkian, Bora-Boran, Polinesian, 2004an.

Hartza

"Hartza Pirinioetan sartzea oso zaila da, jendea bertan bizi delako. Ehiztariak, artzainak... Ez dugu aski baso, eta hartzak artzainekin eta ardiekin bizi nahi du. Mendia denok partekatu behar dugu eta oreka bilatu behar dugu horretarako. Hartzak gaitza du oreka horretan lekua egitea".

Nortasun agiria

Miguel Angulo (Baiona, 1953). Dozena eta erdi liburu eta 40 kartatik goiti kaleratu ditu. Lanik garrantzitsuena, seguru asko, *Pirinioak: 1000 igoera*, sei liburukitan emana. "Hamabost urtez eginahalak egin genituen guk ahal genezakeen argazkirik onenak, ibilbiderik onenak, marrazkirik onenak eta testurik onenak egiteko". Saint Martin de Seignanxko (Landak) eskolan marrazten irakasten die haurrei. Horixe baita oroz gain, marrazkilaria.



Terese, emazte vietnamdarra

“Gurea bezala, arrazoi politikoez deserriraturako familia da Tereserena. Dien Bien Phu-ko batailan frantsesen porrotaren ondoren heldu zen Baionara emaztearen familia. Aita, frantsesa, funtzionarioa zuen eta ama vietnamdarra. Berak ez du vietnamdarrez ele egiten baina biziki maite du hura. Urtero joaten gara Saigon-era bere amaren etxera. Kartak egiten ere izugarri lagundu dit Teresek, bera da liburutako argazkietan bizkarrez ageri dena. Argazkian, 1974an, Aiako Harrian”.

Nire kartetan Larrun agertzen da eta parentesi artean jartzen dut *La Rhune*; Arsamendi Artza-mendi jarri dut. Izenekin laguntzaile franko izan ditut eta guztion artean, poxika-poxika sortu dugu euskarazko toponimia. Noizbehinka gertatu izan zait “bataiatu” beharra. Oihanbeltza izeneko erreka baldin bada, basoa, jakina, Oihanbeltza da; eta mendi-lepoak izenik ez badu nik deituko diot Oihanbeltza lepoa.

Erantzukizun handia da “bataiatu behar” hori.

Barruti bateko guneek izen bera izatea naturala da. Zalanza sortzen da bestaldeko barrutiarekin batzen den lekuan. Nola deitu bi haran lotzen dituen lepoari? Horregatik izaten dituzte mugako lekuek bi izen. Oso mendi gutxi daude izen bera dutenak alde guztietan. Irubelakaskoa konparazione: “hiru kasko beltzak” dira Nafarroa Beherean; Baztanen, aldiz, Alkatxuri da. Eta filosofiko jarrita... Nondik dator toponimoa? Zer da, tipo bat duela milaka urte lehizezulotik lekora begira marraskan? Nondik heldu da Iparla? Ze esanahi du eta ze bilakaera izan du izen horrek? Belaunaldiz belaunaldi ahoz aho heldu dira izen horiek harik eta armadakoek izkiriatzen duten arte, betiko materializatuz. Mendetan erabilitako hotsak jartzen ditu militarrek paperean. Gero, emeki-emeki, jendea forma hori erabiltzen hasiko da. Gaizki idatzita, eta agian lekuz aldatuta, dagoen izen hori zabaldu egingen da. Ezin da zehaztasunez esan leku horrek horrela izena ote duen, ez dagoelako jakiteko molderik. Anabasa da.

Berriz ere Segurola: “Kontuan har bedi mendi-giroko eta itsas-giroko jende ez-informatu eta kulturgabeena dela jakintsuena, hau da, bere inguruko leku-izen gehiena dakizkiena”. Horrelako jende askorekin hitz egindakoa izango zara zu? Anitzekin.

Karta zaharrak vs Google Earth

“Edonon xerkatzen ditut antzinako kartak; Interneten, *marche aux puces*etan. Nire altxorra Halong badiako (Vietnam) bat da, XIX. mendeko nabigatzaileena. Badiako ton-torrek, denek, arma izenak dituzte. Egile kuttuna Franz Schraeder dut. XIX. mendean Pirinioetan sarri ibili zen Monte Perdido mapa berak egin zuen. Sekulakoak dira bere lanak eta kartografia ulertzeko antzeko moldeak dugula iruditzen zait. Google Earth zoragarria da. Hurruneko ibilbideak zehaztasunez estudiatu ditzakezu bertara joan aitzinetik. Iaz, udan, Madagaskarren izan ginen eta abiatu aurretik dena ikusi ahal izan genuen, bideak eta bidexkak, dena”.

Euskara ez jakitea ez al da eragozpena izan?

Euskararekin dudak arazo bera dut katalanarekin, aragoierarekin, biarnesarekin... Horregatik lekuan lekuko mendi taldeekin elkarlanean aritu izan naiz beti. Euskal Herrian beti ibili izan da nirekin Armendaritzeko (Nafarroa Beherea) lagun bat, Jean Bertrand Ibar. Kultura handiko gizona da eta euskara bikaina darabil. Pasioz bizi du kartografia berak ere. Horregatik norbaitekin topo egiten dugun aldiro berak elekatzen dio beharrezko informazioa erdiesteko. Nire kolaboratzaile finena da. Berak erakutsi dizkit Hegoaldeko eta Iparraldeko berezitasunak, eta toponimoek islatu egin behar dituztela berezitasun horiek.

Kartografoek ez al diozue misterioa kentzen munduari?

Alderantziz. Kartak imajinazioari dei egiten dio. Plano batean haitzak edo arroila ikusiz gero lekua irudikatu eta bertara joateko grina sortzen zaizu. Nahiago dut kartak irakurtzearen plazera, bidaia-literatura baino.

Zer behar da kartografia lan ona egiteko?

Arras zaila da. Niretzat kartografia estetika eta teknika da, ez zientzia. Topatutako agiri, argazki eta karta guztiak bildu eta gero marrazten hasten naiz. Horixe bainaiz ni: marrazkilaria. Ogi-bidez ere marrazki irakaslea naiz, egin kontu.

Txomin Peillenek puntu kardinalak euskal kosmopolisioan zuten esanahia ikertu zuen. Ausartuko al zinateke gaur duten esanahiaz solasten?

Hemen ez dakit, baina Polinesiar alderantziz da dena: iparra hegoa da eta egutera iparraldean dago... Kartak interpretatzeko ere lanak ukaten nituen argia alderantziz zegoelako, nahasgarria da. Gainera nik lateralitate arazok ditut; eskuina eta ezkerria, ekialdea eta mendebaldea bereizteko zailtasunak.

Zuk!? Ezkerria eta eskuina bereizteko arazoak!?

(Kar, kar, kar) ...bai, hala da, asko kontzentratu behar izaten dut. Testuan ekialdea jartzen dudanean mendebaldea nahi dut esan eta nire itzultzaile Imanol Tapia ere, itzultzaile bikaina den arren, hor nonbait ibiltzen da. Nik *sud-ouest* jarri eta berak hego-ekialdea itzuli. Banan-banan berrikusi behar izaten ditugu norabide aipu guztiak lana amaitu aitzin.

Zer da muga zuretzat? Azken batean kartografoek zehazten dituzue mugak.

Sekula ez dut mugarik jarri ene lanean. Sekula ez mugarik Aragoi, Euskal Herria, Katalunia eta Biarno artean. Orain zenbait urte *Heraldo de Aragón*en idatzi zuen kazetari batek: “Zer dabil Miguel Angulo hori? Inbaditzaileen alde ari da Kataluniako mapetan Aragoi sartuaz...”. Kataluniako mapan Aragoiko zati bat agertzen zela-

AZKEN HITZA

Argazki perfektua

ko sutu zen gizona. Ez dakit agian [ironiaz] zuri utzi beharko nukeen Kataluniako mugetatik kanpoko guztia. Sua argitaletxe-koei, aldiz, asko gustatu zitzaizen mugak ez emate hori. Izan ere, zinez itsusia da kartak mugen arabera moztea.

Baina ez da estetika auzi hutsa?

Mendiak jendeen aitzinetik bazi-zen eta gero ere egonen dira. Jende gutxi bizi da gailur garaie-tan. Eta muga, hain juxtu, gailur garaienetan jarrita dago. Ezin da erran Vignemale gaskoi baino gehiago aragoarra denik; ezta alderantziz ere. Nik humanizatu-tako mendia maite dut. Ertz gra-nitiko garaiak baino interesga-rriago zaizkit hondar arkitektonikoak, artzain etxolak, xendrak... Herri bakoitzaren kul-tura ikasi daiteke paisaian.

Nolako kultura erakusten du gure paisaiak?

Kanbiatu da. Iparraldean arazoa dugu pistekin. Mendian bizi den jendeak pista horiek behar ditu, hori ulertzen dut, baina kalte handia egiten dio naturari eta paisaiari. Garazi inguruan ehun-ka kilometro bide egin dute. Itsu-sia da guztiz. Zauritu egin dute mendia eta, agian, ez du bueltarik izango.

Ia 40 urte daramatzazu mendian. Mendi-bideak beste aldatu al dira mendizaleak?

70eko hamarkadan apenas ikusten zen jenderik mendian Iparraldean. Hegoaldean, aldiz, baziren ordu-rako igandeko irteerak antolatzen zituzten talde indartsuak. Beti leku jakinetara joaten ziren ordea: Anbotora, Gorbeara... Iparralde-ko mendizaleek nahiago izan dute bakarrik ibili eta Hegoaldean ere denetik da orain.

Esan ohi da menditarrek eta kale-kumeeek modu diferentean ikus-ten dugula ingurua. Kaletarraren-tzat paisaia miresgarria izan daitekeena zeharo zatarra dela baserritarrentzat. Basoz soildu-tako zelaia dira beretzat politak, egokiagoak direnez.

Itsusiko harriak dira horren adibi-de. Nolaz izen hori guretzat Bida-rrai inguruko lekurik ederrenari? Horrelako azalpenen bat behar

Solasaldiaren hondarrean Dani eta Ines, gure argazkilariak, hasi zaizkio galdezka eta argazki perfektua egiteko metodoaren azalpen laburra eman die Angulok:

"Mendira joaten zaren aldiro argazki on bate-kin itzultzea nekeza da. Lana beltz egin behar da. Ni bi aldiz joaten naiz mendi bakoitzera; udan, biderik egokiena atzemateko; eta larrazkenean, argia askoz hobea denez, argazkiak egitera. Bes-talde, potreta ederrenak albotik ateratakoak dira. Vignemaleko erretratu ona egiteko ez duzu Vig-nemalera igo behar, aldameneko tontorrera bai-zik. Punta nagusien jirako zientoka tontortxoeta-ra igotakoa naiz argia, ibilbidea, eta orduaren araberrako kalkuluak egin ondoren. Nik erabiltzen ditudan kartek gezi andana dute argazki perfek-tua lortzeko iritsi beharreko lekua eta ordua sei-nalatzen dutenak. Baina leku horretaraxe ordu horretantxe iritsita ere nahikoa da laino txepel bat dena hankaz gora jartzeko".

Miguel Angulo

du. Itsusi leku itsusia da, naski, ardiak erorita gal daitezkeelako...

"Euskal Herriko leku ezezagunez ez dut gehiago idatziko" zenioen ARGIAN duela hamabost urte.

Euskal Herriko inguru gordeak orain hogeitaz atera nuen. 1987an ez zen nehor ausartzen horrelako txokoetara joaten. Gaur Anbotoko damaren koban erromeria izaten da igandero. Argitaletxeak liburu horren gisa-ko bestea nahi du atera baina nik ez. Jende sobera dabil mendian bestela ere.

Nola babestu natura?

Bortxa dugu zenbait parajetara sarrera legez debekatzea. Ez dago beste erremediorik. Era-bat basatiak izanzen diren guneak mugatu beharko ditugu. Uste dut badela engoitik horre-

lakoren bat. Erreserba integralak esaten diete, Larran bada bat, Auñamendin.

Ederki, ez al dute eski estazioa egin nahi hor?

Bai, ondoan-edo. Eni ere berri ederra irudi-tzen zait [ironiaz]. ■

Elkarlan

euskaltegiak

EUSKARA IKASLEEN JAIA

Ekainaren 21ean 19:30etan KAFE ANTZOKIAN

Elkarlan sareko euskaltegiek atseginez gonbidatzen zaituzte euskara ikasleen jaira. Bertsolariak, antzerkia, musika, omenaldia, euskaldun agiriak, luntxa eta erromeria.

ELKAR IKUSIKO DUGULAKOAN, HARTU GURE AGURRIK BEROENA

